

# Basoa jan



TESTUA ETA ARGAZKIA

**Jakoba Errekondo**

jakoba@bizibartztea.eus

Basoa behera, basoa gora. Gure etorkizuneko ingurumen politikaren ardatza beharko lukeenez, suak kiskaltzen ez duen artean ez gara gogoratzen. Orain bai, Portugalgo zorigaiztoko sutearen ondoren, denon ahotan basoa. Eukalipto urdina dela (*Eucalyptus globulus*), pinu beltza dela (*Pinus radiata*), bertako edo kanpoko espezieak direla... Badaukagu bai, zer hitz egin, proposatu, elkar hartu, adostu eta bideratu basoaren etorkizunaz. Baina suak pasatako lurrraren azala berritu eta birsortzen den bezala, suaren puria pasatakoan egin beharko da.

Purialdian bada, baita ere, basoari begiratzeko era berri bat. "Baso jangarri" deitzen da azken urte hauetan hedatzen ari den nekazaritza ikuspegi berri bat. Ia atzo arte basoa izan da gure bizimoduaren oinarria. Bertatik eskuratu izan dugu energia (egurra, adarra, ika-tza, iduria...), ura, materialetarako zura, erritoei eta espiritualitateari eusteko landareak eta usteak, inaurkintetarako azpigaia (zarba, garo, orbela...), azientarentzako larreak eta bazkak, sendagaiak (belar, sustrai...) eta geuretzako jakiak

(perretxikoak, landareak, animaliak, fruituak...).

Jakiak sortzeko erabilpen horri helduta, etorkizunean jaki ugari sortuko duten basoak sortzeko asmotan dabil jende mordoxka bat. Nola diseinatu, sortu eta mantendu baso jangarriak? Bi baldintza: non biziko da baso hori eta zer bildu nahiko dugu gero. Horien arabera egiten dira moldaketak eta landaketak. Izan ere, bada zer landatu. Haste-ko, zuhaitzak eta arbolak etortzen dira burura: fruitu arbola ezagunak, baina baita ezezagunak edo aspaldi bazterrean utzita ditugunak ere: otsolizarra, gurbea, basagurbea, hostazuria, gurbizta, sagarmina, maaltza; ezkurak ematen dituzten haritz, ametz, erkametz, arte, artelatza eta abarrak; pinaziak ematen dituzten pinuak, pagoa... Zuhaiak ere badira emaila oparo askoak: laharra, endalaha-



"Baso jangarri" esaten zaio azken urteotan hedatuz doan nekazaritza ikuspegi berri bati. Argazkian, arakatza.

rra, ahabia, mugurdia, arakatza, arkakarratsa, erramua...

Jaki sortzaile izateaz gain, beste erabilpenetan pentsatuz basoa sortzen duenak asmatuko duela iruditzen zait: aisialdia, didaktika, etnobotanika, paisaia kulturala... ■

## IRAKURLEAK GALDEZKA

**Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.eus](mailto:landareak@argia.eus) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.**

**Kaixo Jakoba. Jakin nahi nuke zer ari den gertatzen gure inguruan ezpelarekin eta zer irtenbide proposatzen duzun.**

**Luis Erice (Hernani)**

**Kaixo Luis. Ezpelak (*Buxus sempervirens*) bi arazo nagusi ditu gurean: gaitza (*Cylindroclad-***



Ezpele.

MSF-CC BY SA

*dium buxicola*) eta harra (*Cydalima perspectalis*). Azken aldi honetan harra dabil ugari eta oso txarra da, hostoak jaten ditu eta gero adarren azala, landarea erabat soildu arte. Hosto batzuetan harizko habitxo modukoak aurkituko dituzte.

Ahal duzun azkarren tratamendua egiten hasi: astero-astero egin behar da, *Bacillus thuringiensis* izena duen botika bat erabilita. Harraren beraren gaitz bat da eta ez landareei ez guri ez lurrari ez digu kalterik egiten. Nekazaritza ekologikoan erabiltzen da. Xaboiarekin nahastuta bota behar da, ahal izanez gero xaboi potasikoa. Eta ez ahaztu, astero-astero, landarea alde gutzietatik ondo bustiz.